

**PROCESO DE PARTICIPACIÓN PARA LA
ELABORACIÓN DEL PLAN DE LA DIRECCIÓN
GENERAL DE CULTURA-INSTITUCIÓN
PRÍNCIPE DE VIANA.**

**VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEKO KULTURA
ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EGITASMOA
BURUTZEKO PARTE HARTZE PROZESUA**

**REUNIÓN TERRITORIALES
ÁREA DE ALTSASU/ALSASUA**

ALTSASUALDEKO LURRALDEKAKOBILERA

Altsasu/Alsasua, 28 de septiembre de 2016

Altsasun, 2016ko irailaren 28an

AURKIBIDEA

1.-SARRERA.....	1
2.-HELBURUAK ETA TAILERRAREN METODOLOGIA OROKORRA.....	2
3.-PARTE-HARTZAILEAK	3
4.-BILERAREN GARAPENA	4
5.-LABURBILKETA ETA AGURRA	9

1.-INTRODUCCIÓN

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzeak Hiritar Parte-hartze prozesua garatzen ari da Zuzendaritzaren Egitasmoa burutzeko. Prozesu hau Maiatza eta Ekaina bitartean antolatu ziren gaikako bilera sektorialekin martxan jarri izan zen, hauek Nafarroako panorama kulturaren sektore ezberdinen informazioa eskaintzea eta iritzi ezberdinak jasotzea helburutzat zutelarik.

Behin bilera sektorialekin amaituta, **lurraldekako** parte-hartze bilerak antolatu egin ziren, Nafarroako zonalde ezberdinetan burutu izan zirelarik eta helburutzat Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa Nafarroako lurraldean zehar ezagutaraztea eta iritzi plural eta ezberdinagoak jasotzea zituztelarik.

Dokumentu-akta honek Altsasuko "Iortia" Kultura Gunean 2016ko irailaren 28an garatu zen bileraren inguruko informazioa biltzen du.

Bilera honetan parte hartzeko deialdia irekia izan zen, deialdia batez ere zonaldeko kultura agente ezberdinei zuzendu izan zelarik (koordinatzaileak, ordezkari politikoak, elkarten ordezkariak, enpresak, etab.).

2.-HELBURUAK ETA TAILERRAREN METODOLOGIA OROKORRA

Altsasuko lurraldeko bilera 2016ko irailaren 28an garatu zen "Iorta" Kultura Gunean 17:00 eta 19:00 orduen bitartean.

Bilerara erakunde instituzional, elkarte eta enpresariak ziren 8 pertsona bertaratu ziren, guztiek kultura arloarekin zerikusia zutena.

Tailerraren **helburuak** ondorengoak ziren:

1. Parte-hartze Prozesua aurkeztea lurraldekako fasean.
2. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa aurkeztea.
3. Iritziak, ekarpenak, eta. jasotzea, bai zonaldeko kultura beharrei dagokienez, bai Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoarenganako proposamenei dagokienez.

Lurraldeko bilerak ondorengo ordena jarraitu izan zuen:

1. Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzearen Teknikariaren **agurra eta ongietorria**.
2. **Parte-hartze prozesuaren azalpena** oro har eta **zehazki parte-hartze bilerarena** (arauak, bileraren antolaketa, etab.)
3. Nafarroako Gobernuo Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eskutik **Zuzendaritzaren Egitasmoaren aurkezpena**.
4. Talde dinamikaren **parte-hartze lana**.
5. Talde lanaren **bateratzea**.
6. Amaiera eta agurra.

3.-PARTE-HARTZAILEAK

PARTE-HARTZAILEAK	
Izen deiturak	Erakundea
JOSEBA SALEGUI	
BETISA ANDA ARRUABARRENA	ALTSASUKO UDALA
JOSU MIREN RUBIO MENDILUZE	HAIZE BERRIAK SAKANAKO MUSIKA ELKARTEA
JAVIER MOZO LIZARRAGA	ERGOIENAKO UDALA
IRANTZU MOZO BERASTEGI	ERGOIENAKO UDALA
MONIKA ETXEBARRIA ARIZNABARRETA	ARBIZUKO UDALA
VIRGINIA ALONSO APARICIO	OLAZTIKO UDALA
JOSE LUIS OJER MANGAS	ALTSASUKO GAITEROAK

ANTOLAKUNTZA	
Izen deiturak	Erakundea
J. ABEL CASADO MARTÍNEZ	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana SLU
JAGOBA ESAIN AZKONA	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana SLU
NURIA ÁLVAREZ AJURIA	DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA DE GOBIERNO DE NAVARRA

4.-BILERAREN GARAPENA

Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzeko teknikaria den Nuria Alvarezek bertaratutakoak agurtzen ditu eta J. Abel Casado aurkezten du, Parte-Hartze Prozesuaren koordinatzailea eta EIN Arkitektura eta Ingeniaritza SLUren, prozesuaren laguntza teknikoa, ordezkaria dena.

Honen ostean José Abel Casadok, EIN Arkitektura eta Ingeniaritza SLUren ordezkaria denak bertaratutakoak agurtzen ditu eta prozesuaren aurkezpen orokorra egiten du eta baita parte-hartze dinamikarena ere.

Gero Nuria Alvarezek Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoaren (2016-2019) laburketa azalpena egiten du. Zehazki, goiburuaren azalpena eskaintzen du ("Nafarroa, sormen eta sorkuntzarako lurraldea"), Hiritargoaren komunean duen oinarrizko eskubideen artean kokatuz eta Egitasmoa hasiera puntu gisa hartzen duelarik, kultura ondasun erkidetzat hartuta. Honen harira, egitasmoa burutzeko ezarritako ikuspuntu berria egun dauden kudeaketa ereduak kontuan hartuta azaltzen dira, azkenik Kultura Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuak aurkezteko – Historia Ondarea eta Baliabideak, Artxiboak, Liburutegiak, Museoak, Kultura Ekintza eta hauen gaineko ikuspuntua baita helburuak ere.

Ondoren bertaratutakoei parte-hartze dinamika azaltzen zaie.

Lurraldekako bileran egindako aipamen nagusienak ondorengo orrialdeetan azaltzen dira.

<p>1. ZURE ABURUZ, ZEINTZUK DIRA ZURE HERRI/ESKUALDEAN DAUDEN KULTUR BEHAR NAGUSIAK?</p>
<p>BALIABIDE ETA AZPIEGITURAK</p>
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herri txikietan kultur jardunaldi eta ekintza ezberdinak garatzeko giza baliabide, materialak eta azpiegituren eskasia orokorra azpimarratzen da.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Diru laguntzak eskatzeko prozesuaren konplexutasun administratiboak herri txikietako udaletxeen bai bertako herritarrek laguntza horiek eskatu eta eskuratzeko zailtasuna aipatzen da. Zailtasun honi gehitu behar zaio Iruñetik dagoen distantzia fisikoa. Kudeaketa administratibo hau errazteko aholkularitza sistema espezifikoa eratzea.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Tokian tokiko sorkuntza idiosinkrasia propiotik aztertu beharra aipatzen da, baliabideak herrietako eskaintza amateurrari egokituz, diru laguntzak espezifikoak izanda horrela sortzen den edozein ekintza erakustea ahalbidetuz.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Azpiegitura jakin batzuen egoera txarra azpimarratzen da; halanola liburutegiak, non giza baliabideak eskasak dira ("ez dago ordezkorik langileen bajak direla eta"), eskualdeko beharrei egokitzen ez diren ordutegiak (adib.: Altsasuko liburutegia); eta baita artxibategiak ere, non artxiboetara jotzeko arazoak dauden eskuragarritasun falta dela eta, ezezagutza orokorra eta Nafarroako Artxibo Orokorrekiko eskuragarritasun falta. Azken honen inguruan Nafarroako Artxibo Orokorreko artxibategiak beste herrietako Artxiboekin partekatzearen aukera azaltzen da, horrela eskuragarritasuna hobetuz.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Eskualdeko arte ikus entzunezko eta arte plastikoaren egoera tamalgarria azpimarratzen da, Nafarroako Gobernuaren laguntzaren beharrean daudelarik.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Nafarroako Gobernuko baliabide eta azpiegiturak deszentralizatu behar dira Eskualdeak eta herri guztiek hauek eskuragarriago izan ditzaten.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kultura plangintzaren ikuspuntutik abiatuta, larriki beharrezkoa da Eskualdeko kultura egoeraren analisia burutzea, tokiko beharrak ikertu behar dituenak eta baita bertako baliabideak ere, kulturaren ikuspuntu global batetik abiatuta honen eremu guztiak hartuz eta lurralde osoa kontuan hartu behar duena.
<p>HERRIEN ARTEKO KULTURA KOORDINAZIOA</p>
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kultura arlo guztien harmonizazioa beharrezkoa da komunean lan egin dezaten Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa burutzen lagundu ahal izateko.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Eskualde barneko koordinazio falta antzematen da kultura arloan, honen kudeaketari era negatiboan eragiten diona. Haranaren barneko teknikari lokalen arteko koordinazioa beharrezkoa da tradizionalki herrietan eman ohi izan diren banakako ekintzak ekiditeko. Koordinazio maila bera Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin ere lortu beharra dago.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Sailen artean koordinazio handiagoa beharrezkoa da.
<p>PUBLIKOA</p>
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Antolatzen diren kultura ekintzak direla eta, herritarren parte hartze falta sumatzen da publikoaren asistentzia dela eta, batez ere bakoitzaren herritik kanpo antolatua izan bada ekitaldi

1. ZURE ABURUZ, ZEINTZUK DIRA ZURE HERRI/ESKUALDEAN DAUDEN KULTUR BEHAR NAGUSIAK?
hori.
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kultura kontsumo ondasun gisa bultzatu beharra dago, honen helburua betiere afizioa sortzea izanda eta horrela ekitaldietara joango den publikoa sortuz.
PROGRAMAZIOA ETA EKINTZAK
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Antolatzen diren kultura ekintzen tamaina egokitu beharra dago, batez ere euren tamaina txikitzea, honen xedea herri tamaina ezberdinei egokitzea delarik eta horrela eskaintza lehiakorra sustatuz. ▪ Orohar eskaintza kulturalaren deszentralizazioaren beharrea adostasuna dago; bai Iruñerri Haranerako bidean, bai kontrari Haranetik Iruñerri. ▪ Eskualdeko kultura programazioa urtean zehar banatzea; izan ere, egun oso memento puntuetara mugatua baitago, batez ere jaiegun, feria, etab. etara lotuta daudelarik. Urteroko egutegi koordinatua beharrezkoa da kultura ekintzak sakabanatuak izateko eta baita bata besteari gainean ez antolatzeke. ▪ Urte osoan zehar herri txikietan inongo kultura ekitaldirik iristen ez dela azpimarratzen da, euren udaletxeen antolamendu ahalmena erabat mugatua egonda giza baliabide, bai baliabide ekonomikoaren eskasia dela eta. (adib.: Ergoiena).
ONDAREA
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herri txikietako ondare immaterialaren galeraren arriskua azpimarratzen da, hau bera mantentzeko Nafarroako Gobernuak laguntza falta dela eta, baliabideen eskasia dela eta, aholkularitza falta, etab. Zehazki, Ergoienan ospatzen diren "Unanuko Inauterien" galtzearen arriskua azpimarratzen da, euren maskarak, etab. ▪ Sakanako Haranaren baliabide material eta immaterialen aniztasuna kontuen hartu beharra dago honen biziraupena bermatu nahi bada.
HEDAPENA ETA FORMAKUNTZA
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Herritar guztiek kulturarekiko eskuragarritasuna bultzatu egin behar da, bakoitzaren gaitasun ekonomikoa alde batera utzita. ▪ Iruñeko kultura eskaintza herri eta eskualde mailan zabaldu beharra dago.

2.- BEHAR HAUEI AURRE EGITEKO ZER MOTATAKO EKINTZA/PROPOSAMEN BURU BEHARKO ZITUEN KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAK?

BALIABIDE ETA AZPIEGITURAK

- Kulturaren mantentze eta garapena ez dira herrien tamainarengatik edota herritar kantitatearengatik baldintzatua egon behar. Are gehiago, baliabide material eta ekonomikoak (diru laguntzak) kultura arloa garatu nahi duten edota euren ondarea mantendu nahi duten herri guztiengana zabaldu behar dira.
- Kultura Agente edo Sakanako Kultura ordezkariaren postua sortu beharra, bere egoitza Sakanako Mankomunitatean izango zuena eta bere xedea Nafarroako Gobernuarekiko koordinazioa hobetzea izango zuena eta baita Iruña eta Sakanako kulturaren gertutasuna bultzatuko zuena ere.
- Liburutegien baliabide eta zerbitzuak zabaltea, batez ere Altsasun, betiere eskualdeko beharrei begira.
- Eskualdeko zinema eta arte plastikoen produkzioari zuzendutako diru laguntzak zabaltea.
- Ekintza kulturalak antolatzen dituzten kultura taldeek diru laguntzak eskatzerakoan kudeatu behar dituzten kudeaketa administratiboen sinplifikazioa.
- Kultura ekintzak garatzeko euskaldunak diren monitoreak izateko aurrekontuen bultzada.

PROGRAMAZIOA ETA EKINTZAK

- Sakanako Haraneko Kultura Agendaren diseinua, abiatzea eta amaitzea. Bertan Haraneko kultura eskaintza jasotzeko ekitaldien arteko gainjartzea ekiditeko eta posible izanez gero, Mankomunitatetik kudeatutakoa. Agenda hau egiteko ikuspuntua ekitaldiak urtean zehar sakabanatzekoa izan behako zen, guztion artean partekatua izateko eta guztien eskuragarritasuna bermatuz – programatzaileak, taldeak, etab.
- Talde amateurrentzat zuzendutako zirkuitu baten sorrera.
- Nafarroako Agenda Kulturala bere osotasunean zabaldu behar da Nafarroako eskualde guztietara, bere egutegia ezagutarazteko, kultura programazioa, etab; Nafarroako eskualde guztiekin koordinatu behako zena.

ONDAREA

- Herri kulturaren balorapena bultzatzen duten ekintzak planteatu eta burutu behar dira. Ingurugiroa ere baloratu behar da, baita herrietako bizimoduak ere.
- Haraneko kultura aniztasunaren aberastasunaren balorapena bultzatu.
- Unanuako Inauterien iraupena bermatu (Ergoienako Harana).
- Ikasleei zuzendutako diru laguntzak eskaintzea; beti ere Haraneko Ondare immateriala jasotzeaz arduratzen direnei; halanola grabazioak, filmazioak, inbentarioak, etab.

HEDAPENA ETA FORMAKUNTZA

2.- BEHAR HAUEI AURRE EGITEKO ZER MOTATAKO EKINTZA/PROPOSAMEN BURU BEHARKO ZITUEN KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAK?

- Haraneko talde amateurrek ezagutaraztea, beste herrietan ekitaldiak antolatzeke laguntza eskainiz.
- Eskualdeko sistema informatikoak hobetu, batez ere, azpiegiturei, ekitaldi kulturalari, ekintza ezberdinei, etab.-ei dagokienez.
- Eskualdeko kultura ekintzak Nafarroako Agenda Kulturalaren barne ezartzea, horrela ikusgarritasuna lortzeko Haranetik kanpo eta beste tokietara heltzeko.

PUBLIKOA

- Tokiko taldeen erakuntza sustatzea Eskualdean bertan publikoa eratzeko tresna gisa.

KOORDINAZIOA, PARTE-HARTZEA, LURRALDEKOTASUNA

- Nafarroako Gobernuarekin zuzenean komunikatzeko tresna edo espazio baten sorrera, Eskualde eta Gobernuaren arteko informazioa, koordinazioa eta gai kulturalak elkar lantzeko. Honekin lotuta, Eskualdean ezarriko zen Gobernuko Kultura Ordezkararen postua sortzea, tokiko baliabide kulturalak ezagutuko zituenak eta elkargune gisa lan egingo zuena, biztanleriaren eta Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusiaren arteko elkarlana ahalbidetuko zuena.
- Tokiko agente kulturalen arteko informazioa partekatzeko tresnak ezartzea, kultura programazioa erraztuz.
- Nafarroako Gobernuko Kultura eta Hezkuntza sailen arteko koordinazioa bultzatzea.

5.-LABURBILKETA ETA AGURRA

Behin lan dinamika amaituta Parte-hartze teknikariak bileran parte-hartu duten pertsoneri eskerrak ematen dizkie eta hurrengo parte-hartze tailerretan parte-hartzera gonbidatzen ditu, baita Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiko web orrialdea eta participacioncultura@navarra.es mailaren bitartez ere.

Parte-hartzaileei ebaluazio galdetegia betetzeko eskatu ostean, dokumentuaren borradorearen osaketaz informatzen zaie hau irakurtzeko inork bertan zuzenketarik egin nahi izango balu.